


5.



GIDA PRAKTIKOAK:
erosketa publiko arduratsua

PRODUKTU EKOLOGIKOAK ETA 0 KILOMETROKOAK



REAS
EUSKADI
ekonomia alternatibo
eta solidarioa



GIDA PRAKTIKOAK:
erosketa publiko arduratsua

**PRODUKTU
EKOLOGIKOAK ETA
0 KILOMETROKOAK**

Argitalpen hau *Kontsumoari Bira* proiektuaren barruan dago, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak elkarrekin finantzatuta.



Erosketa publiko arduratsurako gida praktikoa
5. Produktu ekologikoen eta 0 kilometroko produktuen kontratazioa

Egilea: Santiago Lesmes Zabalegui

Lege-gordailua: G 00871-2021

Diseinua eta maketazioa: Labox Marketing y Comunicación

Itzulpena: Éditra S.C.

Inprimaketa: Eusko Printing Service S.L.

REAS Euskadi

Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea

Red de Economía Alternativa y Solidaria

EKONOPOLO · Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Poloa

Harrobi plaza 4, 2. solairua · 48003 Bilbo · Tel.-zk.: 944 160 566

reaseuskadi@reaseuskadi.net · @REASEuskadi

www.reaseuskadi.eus



Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 (CC BY-NC-SA 4.0)

Lan hau nahi bezala kopiatu, banatu eta zabaldu daiteke, egilea aipatu eta xede ez-komertziale-tarako erabiliz gero. Lan hau aldatuz gero edo lan honetatik abiatuta besterik sortuz gero, honek daukan lizentzia berarekin baino ezin izango da banatu.

Lizentzia osoa: <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0>.

Edukiak

AURKEZPENA	05
1. ZER KONTRATATUKO DUGU?	08
Kontratazio publiko jasagarria, ekologikoa eta arduratsua: lege-mandaturia	08
Kontratuaren objektua	09
Bete beharreko premiak eta espedientearen justifikazioa	12
2. PRODUKTU EKOLOGIKOEN KONTRATAZIOA	14
Etiketa ekologikoak	14
Kaudimen tekniko edo profesionalarekin lotutako irizpide gisa	17
Preskripzio edo zehaztapen tekniko gisa	21
Adjudikazio-irizpide gisa	26
Betearazpen-baldintza berezi gisa	30
3. HURBILEKO ETA 0 KILOMETROKO PRODUKTUAK	36
4. KONTROLA ETA EGIAZTAPENA	39
5. INGURUMEN-ZIURTAPENEN ETA -ETIKETEN ADIBIDEAK	43
6. GEHIAGO JAKITEKO	46

Aurkezpena

Gida hau REAS Euskadik egin du. Gure xedea da kontratazio publikoan gizarte-eta ingurumen-erantzukizuneko irizpideak sartzeko modua erraztea, prozesu eta produktu ekologikoen eta 0 kilometrokoen bidez, horrela ingurumen-onura nabarmena sustatuko baita.

Gida honen helburu nagusia da kontratu publikoei buruzko legeriak eskaintzen dituen aukerak modu didaktikoan azaltzea eta kontratazio-agirietan sartzeko moduko klausulak, legezko berme eta berme tekniko osoak dituztenak, proposatzea.

Hain arrazoi nabari eta larriagatik, proposatzen dugu administrazio publikoek ingurumen-erantzukizuneko irizpideak barne har ditzatela aukera tekniko eta juridikoen arabera beren obrak, zerbitzuak eta hornidurak kontratatzerakoan.

Gida honetan, agerian jartzen da kontratuei buruzko legeriak lizitazioetan ingurumen-irizpideak sartzearen alde egiten duela argi eta garbi, eta aukera guztiei erabateko bermeekin helduko diegu, ereduako prozedura bat planteatuz, analisi juridiko bat aurkeztuz eta askotariko adibideak erakutsiz.

Ez dago zertan azaldu pelikulako une honetan... pelikula nabariki katastrofe-generokoa dela. Klima-aldaketa atzerazina da eta haren ondoriozko ingurumen-hondamendiak, tamalez, ohikoak gertatzen dira.

Panorama honetan, kontratazio-publikoan ingurumen- eta ekologia-irizpideak sartzek ez luke aukera izan behar, ageriko eta lehentasunezko eginbeharra baizik.

	FASE PROCEDIMENTAL
1. ZER KONTRATATUKO DA?	Kontratuaren prestaketa
	Kontratuaren objektua
	Bete beharreko premiak
	Preskripzio edo zehaztapen teknikoak
	Ingurumen-etiketa eta -ziurtapenen aipamena
2. NORK HAR DEZAKE PARTE LIZITAZIOAN?	Kaudimen teknikoa edo profesionala
3. ¿ZER BALORA DAITEKE?	Adjudikazio-irizpideak
4. NOR BEHARTU DAITEKE?	Kontratuaren betearazpen-baldintza bereziak
5. NOLA EGIAZTATZEN ETA FROGATZEN DA?	Kontrola eta egiaztapena

	DESCRIPCIÓN	NORMATIVA
	Gizarte- eta ingurumen-irizpideak sartzeko zeharkako eta nahitaezko mandatua.	SPKLaren 1.3 artikulua
	Alderdi hauek barne hartzen dituen zerbitzua, obra edo hornidura: • Elikagai ekologikoak eta hurbilekoak. • Irizpide bioklimatikoak. • Energia-efizientzia. • Ur-efizientzia. • Produktu ekologikoak. • Baso jasangarrietako zur ziurtatua.	SPKLaren 99 artikulua
	Erosketa ekologikoaren edo hurbileko erosketaren aldeko arrazoiketa nabaria.	
	Inpaktuen eta isurien ebaluazioa eta haiek txikiagotzeko moduak.	SPKLaren 28.1 artikulua
	Betekizun teknikoak, funtzionalak eta errendimendukoak betetzea eskatzen dute. Produktuei, prozedurei, materialei edo errendimenduei buruzkoak izan dait	SPKLaren 125. eta 126. artikulua
	Ziurtapenak, etiketak, erregelamenduak, arauak edo homologazioak aipatuz definitu behar dira.	SPKLaren 127 artikulua
	Kontratazio-organoak elikagaien kalitatea ziurtatu nahi badu, kaudimen teknikoari buruzko irizpide bereziak aipatu ahalko ditu, adibidez: • Ustategia nekazaritza edo abeltzaintza ekologikoko gisa ziurtatuta egotea. • EMAS edo ISO 14001 ziurtagiriak.	SPKLaren 86. artikulutik 91. artikulura
	Ingurumen-kalitatearekin zerikusia duten alderdiak, enpresa adjudikazioduna aukeratzeko baremoko multzoan puntuak emango dituztenak, ezartzea.	SPKLaren 127. eta 145. artikulua
	Ingurumen-kalitateari buruzko betebeharrak, adjudikaziodun suertatzen den enpresak nahitaez betetzekoak, sartzeara.	SPKLaren 127. eta 202. artikulua
	Ingurumen-klausulak ziurtatzeko eta egiaztatze sistemak ezartzea.	SPKLaren 62.1, 194.2, 202.3, 122.3, 192.1, 211 eta 122.2 artikulua

1. Zer kontratatuko dugu?

Kontratazio publiko jasangarria, ekologikoa eta arduratsua: lege-mandatuak

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentarauak, kontratazio publikoari buruzkoak (aurrerantzean, 2014/24/EB Zuzentaraua) 180°-ko norabide-aldaketa ekarri zuen administrazio publikoek beren produktuak eskuratzeko edo beren obrak eta zerbitzuak kontratatzeke bete behar dituzten helburuei eta prozedurei dagokienez.

2014/24/EB Zuzentaraua araudi nazionalera eramatean, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (aurrerantzean, SPKLa edo SPKL17-a), printzipio eta lehenetasun horiek onartu ez ezik, garatu eta zehaztu ere egin zituen, gida honetan haren artikulua aztertuz ikusiko dugun moduan.

Prozedura-aukera eta aplikazio-proposamen zehatzei heldu baino lehen, ezinbestekoa da SPKL17-aren 1.3 artikulua aipatzea. Izan ere, adierazpena mugatzen ez den xedapen-ondorio argiarekin, argi eta garbi ezartzen du kontratu publiko guztiek gizarte- eta ingurumen-erantzukizuneko irizpideak barne hartu behar dituztela.

1. ARTIKULUA. Xedea eta zertarakoa

3. Kontratazio publiko orotan, zeharkako eta aginduzko eran, irizpide sozial eta ingurumenekoak sartuko dira, kontratuaren objektuarekin zerikusia duten bitartean, sinetsita haiek sartzeak kalitatea-prezioa erlazio hobea emango duela kontratu-prestazioan, bai eta efizientzia handiagoa eta hobea ere funts publikoen erabileran. Halaber, enpresa txiki eta ertainen eta ekonomia sozialeko enpresen kontratazio publikorako sarbidea erraztuko da.

Manu hori ikusita, eta gainera SPKLaren lehen artikuluan, ez da gaineratu behar jada zentzugabea dela lege- edo dotrina-arloan eztabaidatzea gizarte- eta ingurumen-klausulak legezkoak diren ala ez. Izan ere, indarrean sartu zenetik, gizarte- eta ingurumen-irizpiderik txertatu gabe kontratatzea da legez kanpokoa, SPKLaren 1.3 artikulua urratzeagatik.

Beraz, jarraian garatuko ditugun proposamenetan, kontratu publikoak gizarte- eta ingurumen-irizpideak oro har eta nahitaez sartuta lizitzatzeko eta adjudikatzeko asmoa eta eginbeharra gauzatuko dira. Xedapen hori, gainera, SPKLaren 28.4 artikulua indartzen du:

28. ARTIKULUA. Kontratuaren premia eta egokitasuna, eta efizientzia kontratazioan.

2. Sektore publikoko erakundeek efizientzia eta erabakitako baldintzak betetzen direla begiratuko dute kontratazio publikoko prozesuak gauzatzeko orduan, izapideak ahalik eta lasterren egiten lagunduko dute, kontratazio publikoaren prozedurretan alderdi positibo gisa hartuko dituzte kontsiderazio sozialak, ingurumenekoak eta berrikuntzakoak, eta enpresa txiki eta ertainek parte hartzea eta informazioa kosturik gabe eskuratzea sustatuko dute, lege honetan aurreikusitako eran.

Kontratuaren objektua

Geure buruari egin behar diogun lehen galdera da ea komenigarria den kontratuaren objektuan bertan ingurumen-irizpideak berariaz aipatzea.

Eta erantzunak baietz izan beharko luke, modu horretan kontratazio-organoaren eta administrazio publikoaren asmoa zertzen eta ikusgai egiten delako; alegia, asmoa ez da, adibidez, ordenagailu-hornidura soilak lizitzatu eta kontratatzea, energia-efizientzia duen hornidura bat baizik. Edo, eskola-jantokiko zerbitzua kontratatu beharrean, produktu ekologikoak eta hurbilekoak eskaintzen dituen eskola-jantokiko zerbitzua kontratatu nahi dela agerrarazten da.

Aukera hori guztiz bermatzen du Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 99.1 artikulua:

99. ARTIKULUA Kontratuaren objektua..

1. Sektore publikoko kontratuen objektuak zehatza izan behar du. Objektu hori bete nahi diren beharrian edo funtzionaltasun zehatzei erreparatuta definitu ahalko da, kontratuaren objektua konponbide bakar batera mugatu gabe. Bereziki, kontratatzen diren ondasun, obra edo zerbitzuen efizientzia eta jasangarritasuna hobetzen duten berrikuntza teknologiko, sozial edo ingurumenekoak sar daitezkeela uste den kontratuetan definituko da modu horretan.

Araudiak kontratuaren objektua alderdi sozial eta ingurumenekoak aipatuz definitzeko aukera ezartzen du eta kasu batzuetan («uste den kontratuetan») agindua ere ezartzen du («definituko da»).

Garrantzitsua da ohartaraztea 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua indargabetuta dagoela eta, beraz, haren 150.1 artikuluan ezartzen zuen betekizunak ez duela indarrik; hain zuzen ere, honako hau agintzen zuen: «kontratuaren objektuari zuzenean dagozkion irizpideak hartuko dira kontuan». Interpretazio murriztaile horri 2014/24/EB Zuzentarauan heldu zitzaion eta bertan konpondu egin zen; hain zuzen, testua hitzez hitz sartu da SPKLaren 145.6 artikuluan eta, hala, kontua behin betiko ebatzi da.

145. ARTIKULUA. Kontratua adjudikatzeko baldintzak eta irizpide motak.

6. Honako kasu honetan egongo da loturik adjudikazio-irizpide bat kontratuaren objektuarekin: adjudikazio-irizpidea kontratu horren indarrez eman behar diren prestazioei dagokienean edo haiek integratzen dituenean, edozein alderditan eta bizi-zikloko edozein etapatan, horren barnean direla honako prozesu hauetan esku hartzen duten faktoreak:

- a)**) Obren, horniduren edo zerbitzuen produkzio-, prestazio- edo merkaturatze-prozesu zehatzean parte hartzen duten faktoreak, erreferentzia berezia eginez ingurumenaren eta gizartearen ikuspuntutik jasagarriak eta zuzenak diren produkzio-, prestazio- edo merkaturatze-moduei;
- b)** edo bizi-zikloaren beste etapa bateko prozesu zehatzean parte hartzen duten faktoreak, baita faktore horiek substantzia materialaren zati bat ez direnean ere.

Ondorio juridikoa begi-bistakoa da: kontratu-prestazioarekiko lotura era zabalean ezar daiteke, obraren, zerbitzuaren edo horniduraren edozein alderdi kontratuaren objektuarekin lotutzat jo behar izateko moduan, diseinatzen edo ekoizten denetik merkaturatzen eta eskura jartzen den arte, prestazioaren substantzia materialaren zati bat izan zein ez.

Kontratuaren objektua kontratuaren prestazioan erabili edo eman beharreko produktuen kalitatea eta ingurumen-erantzukizuna aipatuz definitzea lege-osagarria ez ezik gomendagarria ere bada, balio gehigarri hirukoitza dakarrelako:

- Prozedurari gardentasuna ematen dio, lizitatzen dutenek alde aurretik ezagutzen dituztelako prestazioaren edukia eta ingurumen-betebeharrak.
- Indar eta balio handiagoa ematen die ingurumen-klausulei, kontratuaren objektutik bertatik adierazten baita haien garrantzia.
- Administrazio publiko kontratatzailearen koherentziari eta sentsibilizazioari buruzko mezu argia islatzen du.

APLIKATZEKO PROPOSAMENA. KONTRATUAREN OBJEKTUA. ADIBIDEAK.


- Elikagai ekologikoak eta hurbilekoak eskaintzen dituen eskola-jantokiko zerbitzua.
- Kultura-etxearen proiektua irizpide bioklimatikoak eta energia-efizientziakoak barne hartuz idazteko laguntza teknikoa.
- % 100ean berriztagarria den energia elektrikoaren hornidura.
- Kiroldegian isolamendu termikoarekin eta energia-autosufizientziarekin lotutako irizpideak barne hartuz egindako obrak.
- Irizpide organikoak eta ur-efizientziakoak barne hartzen dituen lorezaintza-zerbitzua.
- Produktu ekologikoak erabiliz emandako garbiketa-zerbitzua.
- Baso berriztagarri ziurtatuetatik datorren zurez egindako hiri-altzarien hornidura.
- Argiteria publikoa energia-efizientziaz eta kontsumo txikiaz mantentzeko eta ordezteko zerbitzua.
- Ibilgailu elektriko baten, ibilgailu hibrido baten edo isuri gutxiko ibilgailu baten hornidura.



**MEMORIA PROPUESTA DE CONTRATACIÓN POR LOTES CON PERSPECTIVA MEDIOAMBIENTAL
DEL SERVICIO DE ELABORACIÓN Y SUMINISTRO DE COMIDAS**



Irungo Udalaren agiri baten adibidea, zeinak ingurumen-ikuspegiaren aldeko apustua esplizitatzen baitu otorduez hornitzeko zerbitzuan.



Modu labur baino argian, ikusten dugu Bilboko Udalaren kontratu honen objektua ez dela paper-hornidurara mugatzen, ingurumen-inpaktu txikiko papera aipatzen delako (geroago zehazten da, adjudikazio-irizpideetan).

Bete beharreko premiak eta espedientearen justifikazioa

Kontratuaren objektua modu koherentean eta eduki jasangarria eta arduratsua aipatuz definitzeko interesari eusteko, orobat gomendatzen dugu kontratazio-espedientearen justifikazio-memorian edo bete beharreko premiak esplizitatzen diren tokian laburki azaltzea ingurumen-irizpideekin kontratatzeak zer balio gehigarri ekartzen duen eta zergatik den beharrezkoa.

Ildo horretan, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 1.1 eta 28.1 artikulua aipa daitezke:

1. ARTIKULUA. Xedea eta zertarakoa.

1. Lege honen xedea sektore publikoan egiten diren kontratuak arautzea da, eta horren bidez bermatu nahi da, batetik, kontratazioa printzipio hauen arabera gauzatuko dela: lizitazioetan parte hartzeko askatasunaren printzipioa, prozeduren gardentasunaren eta publikotasunaren printzipioa eta lehiakideen arteko diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasunaren printzipioa; bestetik, aurrekontuaren egonkortasunaren eta gastuaren kontrolaren helburuari eta osotasunaren printzipioari lotuta, ziurtatu nahi da obrak egiteko, ondasunak eskuratzeko eta zerbitzuak kontratatzeko diru-funtsak efizientziaz erabiliko direla, dauden premiak aldeztu aurretik definituz, lehia askea babestuz eta ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintza hautatuz.

28. ARTIKULUA. Kontratuaren premia eta egokitasuna, eta efizientzia kontratazioan.

1. Sektore publikoko erakundeek beren helburu instituzionalak betetzeko eta gauzatzeko behar diren kontratuak egingo dituzte, ez besterik. Horretarako, zehatz-mehatz zehaztu behar dira egitekoa den kontratuaren bidez bete nahi diren premien izaera eta hedadura, bai eta kontratuaren objektua eta edukia premia horiei erantzuteko egokiak diren edo ez ere, prozedura ireki edo murriztuaren edo publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatzen denean. Horren guztiaren berri jaso beharko da kontratua prestatzeko dokumentazioan, kontratua adjudikatzeko prozedurari ekin aurretik.



PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TECNICAS PARA LA CONTRATACION POR PROCEDIMIENTO ABIERTO DEL SUMINISTRO DE PRODUCTOS DE ALIMENTACIÓN PARA LAS RESIDENCIAS MUNICIPALES DE PERSONAS MAYORES DEPENDIENTES DEL DEPARTAMENTO DE POLÍTICAS SOCIALES Y SALUD PÚBLICA DEL AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ.

El objeto del presente pliego es el suministro de Productos de Alimentación, para las Residencias Municipales del Servicio de Personas Mayores, conforme al presente pliego de prescripciones técnicas.
Dado el compromiso adquirido por el AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ con la compra pública ética y la contratación socialmente responsable y sostenible, se aplicarán criterios de sostenibilidad y protección ambiental en la valoración del concurso y posterior adjudicación. Así mismo se contempla en este concurso un lote de productos de comercio justo.



Gasteizko Udalaren agiri honetan, jasangarritasunarekin eta ingurumen-babesarekin lotutako irizpideak barne hartuz kontratatzeko asmoa adierazten da.

2. Produktu ekologikoen kontratazioa

Etiketa ekologikoak

Honela definitzen dira etiketa ekologikoak: ingurumen-kalifikazioko borondatezko sistemak, zeinek modu ofizialean identifikatzen eta ziurtatzen baitute produktu, prozesu edo enpresa jakin batzuek inpaktu kaltegarri txikiagoa dutela ingurumenean.

Etiketa ekologikoak kontratu publikoei buruzko legerian sartu dira, eta arrazoiketa nabaria da: bide ematen dute jakiteko zer parametrok zehazten duten produktu, prozesu edo enpresa bat besteak baino ekologikoagoa dela. Horrela, kontratazio-organoak ez du datu teknikorik arakatu, saiakuntzarik egin edo frogabide konplexurik analizatu behar; aitzitik, haren informazio-iturria etiketa ekologikoak dira, eta horrek, alde bate-tik, froga-bermea eskaintzen du eta, beste aldetik, administrazio-prozedura nabarmen arrazionalizatzea ahalbidetzen du.

Etiketa ekologikoaren kontzeptua zabala da, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 127.1 artikulua azaltzen duen moduan, baita 2014/24/EB Zuzen-tarua 2.1.23) artikulua ere, berdin-berdin idatzita:

«"Etiketa": da kasuko obrek, produktuek, zerbitzuek, prozesuek edo prozedurek zenbait baldintza zehatz betetzen dituztela berresten duen edozein agiri, ziurtagiri edo egiaztagiri».

Lau etiketa-mota nagusi bereiz daitezke:

➤ **Irizpide anitzi dagozkien etiketak.** Ohikoenak dira eta produktuak edo zerbitzuak bizi-zi-klo guztian (lehengaiak erauzten direnetik erabiltzen eta amaieran deuseztatzen den arte, ekoizpen- eta banaketa-faseak barne) daukan ingurumen-inpaktuari buruzko informazioan oinarritzen dira. Adibidez, EBko etiketa ekologikoa (lorea), Zisne Nor-dikoa eta Aingeru Urdina.

➤ **Alderdi bakar bati buruzko etiketak. Alderdi.** Alderdi zehatz batekin lotutako onarpen- zein baztertze-irizpide batean edo batzuetan oinarritzen dira. Adibidez, papera batere klororik ez daukan ala badaukan zehazten duten ziurtagiriak.

➤ **Berariazko etiketa sektorialak.** Eremu zehatzetan aplikatzen dira, hala nola Baso Administrazio Kontseilua (FSC) erakundeak eta beste batzuek basogintzaren arloan kudeatutako ziurtapen-programak eta Baso Ziurtapena Onartzeko Programa (PEFC).

➤ **Produktu sailkatuen etiketak.** Kasuan kasuko irizpideari dagokion ingurumen-portaeraren arabera sailkatzen dira, onarpen- edo baztertze-irizpideak erabili beharrean. Adibidez, EBko energia-etiketatur, energiarekin erlazionaturako produktuak energia-efizientziako mailaren arabera sailkatzen dituenak.

Nazioko legeriak eta kontratu publikoei buruzko zuzentzauek berariaz eta zabalki ahalbidetzen digute ingurumen-etiketak erabiltzea, SPKLaren 127.2 artikuluko betekizunak betetzen badira.

Nazioko araudia eta Europar Batasuneko oso modu berdintsuan eta koherentean idatzita daude; beraz, nahikoa da esatea, erreferentzia gisa, 2014/24/EB Zuzentzauek ingurumen-etiketak eta -ziurtapenak aipatzen dituela 43. eta 58. artikuluetan, XII. eranskinean eta 74., 75. eta 88. kontuan hartuzkoetan.

Jarraian, SPKLaren 127. artikulua, gizartearen eta ingurumenaren arloko etiketei eta ziurtapenei buruzkoa, kopiatzen da, zeina prozedura-aukera bakoitzerako (kaudimen teknikoak, preskripzio teknikoak, adjudikazio-irizpideak eta betearazpen-baldintza bereziak) manuek osatzen baitute.

127. ARTIKULUA. Etiketak.

1. Lege honen ondorioetarako, «etiketa» da kasuko obrek, produktuek, zerbitzuek, prozesuek edo prozedurek zenbait baldintza zehatz betetzen dituztela berresten duen edozein agiri, ziurtagiri edo egiaztigiri.

2. Kontratazio-organoek, ezaugarri bereziak -ingurumen arlokoak, sozialak edo bestelakoak- dituzten obrak, hornidurak edo zerbitzuak eskuratzeko asmoa dutenean, berariazko etiketa bat eskatu ahalgo dute preskripzio teknikoetan, adjudikatzeko irizpideetan edo kontratua egikaritzeko baldintzetan, obrek, zerbitzuek edo hornidurek eskatutako baldintzak betetzen dituztelako frogabide gisa: etiketa sozial edo ingurumenekoak, nola baitira nekazaritza edo abeltzaintza ekologikoarekin, bidezko merkataritzarekin, edo genero-berdintasunarekin lotutakoak, edo Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarritzko konbentzioak betetzea bermatzen dutenak. Halakoak eskatzeko, betiere, baldintza hauek guztiak bete beharko dira:



- a) Etiketa lortzeko eskatutako baldintzak kontratuaren objektuarekin lotutako irizpideen ingurukoak izatea bakarrik, eta egokiak izatea objektu hori osatzen duten obren, horniduren edo zerbitzuen ezaugarriak definitzeko.
- b) Etiketa lortzeko eskatzen diren baldintzen oinarria objektiboki egiaztatzen ahal diren irizpideak izatea, diskriminatzaileak ez direnak.
- c) Etiketak prozedura ireki eta garden baten arabera hartzea, zeinetan zerikusia duten alderdi guztiek parte hartzen ahalko duten, hala nola gobernuko erakundeek, kontsumitzaileek, gizarte-solaskideek, fabrikatzaileek, banatzaileek eta gobernuz kanpoko erakundeek.
- d) Etiketak interesdun guztien eskura egotea.
- e) Etiketa lortzeko eskatzen diren baldintzak hirugarren batek jarriak izatea, hau da, enpresaburuak modu erabakigarrian ezin eragin diezaiokeen batek jarriak.
- f) Etiketei buruzko erreferentziek berrikuntza ez murriztea.

Etiketa batek 2. apartatuko b), c), d) eta e) letretako baldintzak betetzen dituenean baina kontratuaren objektuarekin loturarik ez duten baldintzak ezartzen dituenean, kontratazio-organoek ez dute eskatuko etiketa, baina, haren ordeztan, preskripzio teknikoak etiketa horretako zehaztapen xehean arabera definitzen ahalko dituzte, edo, hala bada, badagokio, haren zenbait zatiren arabera, kontratuaren objektuarekin lotuta badaude eta objektu horren ezaugarriak definitzeko egokiak badira.

3. Berariazko etiketa bat eskatzen duten kontratazio-organoek onartu beharko dituzte obrek, hornidurek edo zerbitzuek hura lortzeko eskatzen diren baldintzen baliokideak diren beste batzuk betetzen dituztela frogatzen duten **etiketa guztiak. Kontratazio-organoak beste frogabide egoki batzuk onartuko ditu**, 128. artikuluan aipatutakoak barne, kontratista izango denak eman beharreko obrek, hornidurek edo zerbitzuek berariaz eskatzen den etiketaren baldintzak betetzen dituztela frogatzeko balio badute.

4. Kontratazio-organoek, baldintza-agirietan ez badute esaten obrek, hornidurek eta zerbitzuek eskatzen diren baldintza guztiak bete behar dituztela etiketa bat lortzeko, adierazi beharko dute baldintza horietatik zeini buruz ari diren.

5. Preskripzio teknikoetan etiketa jakin bat adierazi arren, kontratazio-organoak baldintza-agirietan argi eta garbi zehaztu beharra dauka beti zer ezaugarri eta baldintza ezarri nahi dituen, hau da, eskatutako etiketa zehatzarekin egiaztatu nahi diren ezaugarri eta baldintzak argi eta garbi zehazteko betebeharra dauka beti.

6. Baliokidetasuna frogatzeko karga, nolanahi ere, hautagaiak edo lizitatzaileak hartuko dute beren gain beti.

SPKLaren 127.2 artikulua eta 2014/24/EB Zuzentarauaren 43. artikulua aipatzen dute ingurumen-etiketak edo -ziurtapenak **preskripzio teknikoetan, adjudikazio-irizpideetan edo kontratua egikaritzeko baldintzetan**, eskatu ahalko direla.

Gainera, SPKLaren 90. artikulua eta atarikoaren V. atalak eta 2014/24/EB Zuzentarauaren 58. artikulua, XII. eranskinak eta 88. kontuan hartzekoak ahalbidetzen dute ingurumen-ziurtapen bat ezartzea **kaudimen teknikoko betekizun** gisa.

Ondorioz, etiketa ekologikoak administrazio-klausulen eta klausula teknikoen agirietan sartu ahalko dira, jarraian azalduko ditugun lau prozedura-aukeretan.

Kaudimen tekniko edo profesionalarekin lotutako irizpide gisa

Kaudimen teknikoa edo profesionala lizitazio batean parte hartzeko nahitaezko betekizuna da eta egokitasun-analisi bat eskatzen du, parte hartu nahi duten enpresek kontratua behar bezala egikaritzeko gaikuntza, giza talde, esperientzia edo ibilbide egokia daukaten zehazteko.

Kaudimena proposamenak ebaluatu aurretik analizatzen da eta erabakigarria da enpresa lizitaziorako onartzea ala baztertzea erabakitzeko.

Kaudimen teknikoa edo profesionala ezartzeko aukera SPKLaren 86. artikulutik 91. artikulura bitartean araututa dago. Eta, **berariaz, obra-kontratueta ingurumen-kaudimen teknikoa SPKLaren 88.1.d) artikuluan arautzen da; eta zerbitzu-kontratukoena, aldiz, SPKLaren 90.1.f) eta 90.2 artikuluetan**. Hain zuzen, enpresek kontratua egikaritzean aplikatuko dituzten ingurumen-kudeaketarako neurriak aipatzen dituen kaudimen tekniko bat eskatzea ahalbidetzen du.

88. ARTIKULUA. Kaudimen teknikoa obra-kontratueta.

1. Obra-kontratueta, enpresaburuaren kaudimen teknikoa ondorengo bitarteko hauetako baten edo batzuen bitartez egiaztatu beharko da, kontratazio-organoak egindako aukeraren arabera:

d) Egoki den kasuetan, enpresaburuak kontratua egikaritzean aplikatu ahalko dituen ingurumen-kudeaketako neurriei buruzko adierazpena.

90. ARTIKULUA. Kaudimen tekniko edota profesionala zerbitzu-kontratueta.

1. Zerbitzu-kontratueta, enpresaburuen kaudimen teknikoa edo profesionala balioesteko, haien ezagutza teknikoak, eraginkortasuna, eskarmentua eta fida-garritasuna hartuko dira aintzat, eta, kontratuaren objektuaren arabera, ondorengo bitarteko hauetako baten edo batzuen bitartez egiaztatu beharko dira horiek guztiak, kontratazio-organoak egindako aukeraren arabera:

f) Egoki den kasuetan, **enpresaburuak kontratua egikaritzean aplikatu ahaliko dituen ingurumen-kudeaketako neurriei buruzko** adierazpena.

2. Prozeduran **parte hartzeko gonbidapenean edo lizitazio-iragarkian** ieta kontratuaren baldintza-agirietan zehaztuko da artikulua honetan biltzen direnetatik zein bitarteko onartzen diren kontratua beraiei adjudikatzea nahi duten enpresaburuen kaudimen teknikoa egiaztatzeko, eta, behar izanez gero, berariaz adieraziko dira haietako bakoitzarentzat eskatuko diren gutxieneko balioak. Eta hauek buruzko zehaztapenak egingo dira, aplikatzekoak direnean: titulazio akademikoak edo profesionalak, azterketa- eta ikerketa-bitartekoak, kalitate-kontrolak, gaitasun teknikoaren ziurtagiriak, makineria, tresneria eta instalazioak, eta **eskatzen diren ingurumen-kudeaketako ziurtagiriak**.

Hornidura-kontratueta ez dago berez horrelako zehaztapenik, baina 89.1.c) artikuluan kalitatea bermatzeko erabilitako neurriei buruz aipatutakoa erabat aplikagarria da, baita 89.1.g) artikuluan hornidura-kateko kudeaketa-sistemei buruz aipatutakoa ere, kontratua egikaritzean, eta SPKLaren atarikoaren V. atala eta 94. artikulua ere bai, ingurumena kudeatzeko arauak berariaz aipatzen baitituzte.

94. ARTIKULUA. Ingurumena kudeatzeko arauak betetzen direla egiaztatzea.

1. Erregulazio harmonizatuko kontratueta, kontratazio-organoek eskatzen dutenean organismo independenteek emandako ziurtagiriak aurkez daitezela kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzeko bitarteko gisa, haien bidez egiaztatzeko lizitatzailerak bete egiten dituela ingurumena kudeatzeko zenbait arau, hauetako bat aipatuko da: Batasunaren Ingurumen Kudeaketa eta Ikuskaritzako Sistema (EMAS), edo ingurumena kudeatzeko beste sistema batzuk, 2009ko azaroaren 25eko 1221/2009 (EE) Erregelamenduaren 45. artikuluari jarraituz onetsitakoak, edo ingurumena kudeatzeko bestelako arauak, onetsitako organismoek alor horretan emandako Europako zein nazioarteko arauetan oinarritutakoak.

2. Kontratazio-organoek ontzat emango dituzte Europar Batasuneko edozein estatutan ezarritako organismoek egindako ziurtagiri baliokideak, eta halaber

onartuko dituzte lizitatzailleak aurkezten dituen ingurumena kudeatzeko neurri baliokideen bestelako frogak, eta, bereziki, ingurumena kudeatzeko hartutako neurrien deskribapen bat, baldin eta lizitatzailleak demostratzen badu neurri horiek eta aplikatzekoa den ingurumena kudeatzeko sistemaren edo arauaren arabera eskatzekoak baliokideak direla.

ATARIKOA (V).

Ingurumenaren eremuan, **ingurumen-kudeaketarako ziurtagiriak exijitzen zaizkie enpresa lizitatzailleei, kaudimen teknikorako baldintza gisa; hau da, ingurumena babesteko eremuan enpresa horiek duten esperientzia edo «jardunbide ona» egiaztatzeko.**

Ingurumen-eremuari dagokion kaudimen teknika edo profesionala eskatzean, klausula-motak ingurumena kudeatzeko prozesuak aipa ditzake (adibidez, EMAS ziurtapena, ISO 14001 ziurtapena edo baliokideren bat eskatuz) edo ingurumen-ziurtagiri zehatz bat eduki beharra ezar dezake.

Garrantzitsua da ohartaraztea klausula hori legezkota izateko inoiz ez dela ziurtagiri zehatz bat soil-soilik eskatu behar; aitzitik, beste ziurtagiri baliokide batzuk berariaz onartu behar dira, eskuratzeko ezarritako betekizunak betetzen dituen beste ziurtapen edo etiketa bat daukan edozein entitate lehiatu ahal izan dadin lizitazioan eta ziurtapen jakin bat ez daukaten lizitatzailleek ordezeko beste frogabide batzuei heldu ahal izan diezaieten.

APLIKATZEKO PROPOSAMENA. KAUDIMEN TEKNIKOKO BETEKIZUNAREN ADIBIDEA.

- Enpresa lizitatzaillearen eta kontratu-prestazioen ingurumen-kalitatea ziurtatze aldera, EMAS ingurumen-ziurtapena (edo ISO 14001 ziurtapena edo berariazko bat, adibidez, bidezko merkataritzari edo nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoari buruzkoa) aurkezteko eskatzen da kaudimen tekniko edo profesionaleko betekizun gisa.
- Enpresa lizitatzailleek, ingurumenaren arloko kaudimen teknika egiaztatzeko, beste edozein ziurtapen baliokide edo zuzenbidean onartutako beste edozein frogabide erabili ahalko dute, modu fede-emailean egiaztatzen badu ingurumen-ziurtapen hori eskuratzeko eskatutako betekizun guztiak betetzen dituztela.

Secretaría General Técnica
Servicio de Contratación



economía y
hacienda

MADRID

PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES QUE HA DE REGIR EL "ACUERDO MARCO PARA EL SUMINISTRO DE ENERGÍA ELÉCTRICA RENOVABLE PARA EDIFICIOS MUNICIPALES Y EQUIPAMIENTOS DEL AYUNTAMIENTO DE MADRID Y SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS (4 LOTES)", A ADJUDICAR POR PROCEDIMIENTO ABIERTO. (EXPEDIENTE N° 135/2017/00252).

- Certificación emitida por la Comisión Nacional de los Mercados y de la Competencia, de acuerdo con la orden IET/931/2015, de 20 de mayo que modifica la ITC 1522/2007, de que la energía comercializada es de origen 100% renovable.



Adibide moduan, Madrilgo Udalaren energia berriztagarriaren hornidurarako agiriaren pasarte bat erakusten dugu (82 milioi euroko kontratua da). Kaudimen teknikoko eskakizun gisa ezarri zen enpresek Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak jaulkitako A etiketaz kalifikatuta egon behar dutela eta % 100ean berriztagarria den energiaren hornitzaileak baino ez direla egiaztatu behar dutela.

PRESCRIPCIONES TÉCNICAS DEL SERVICIO DE ENDURECIMIENTO DE PLANTAS DE PLATANERA ECOLÓGICA PARA LA ENTIDAD CULTIVOS Y TECNOLOGÍA AGRARIA DE TENERIFE, S.A. (CULTESA).

2. Solvencia técnica: La solvencia técnica del CONTRATISTA se acreditará por todos y cada uno de los siguientes medios, debiéndose adjuntar a tal efecto la documentación acreditativa pertinente:

d) Certificado de la inscripción del licitador en el Registro de Productor de semillas y plantas de vivero y también como Operador de agricultura ecológica,



Kaudimen teknikoaren beste adibide bat: nekazaritza ekologikoko eragile gisa inskribatuta egotea aipatzen da betekizun gisa.

Preskripzio edo zehaztapen tekniko gisa

Preskripzio teknikoek kontratatu nahi dena berariazko errendimenduekin edo legezko deskribapenekin bat etorri zehazten dute, hau da, kontratuaren objektua funtzionaltasunarekin lotutako parametro objektibo eta zientifikoez deskribatuz.

127. artikuluan ez ezik (ingurumen-etiketa eta -ziurtapen orokorrak adierazten baititu), SPKLaren 125. eta 126. artikuluetan ere zuzenean aipatzen da ingurumen-etiketak preskripzio tekniko gisa ezartzeko aukera:

125. ARTIKULUA. Preskripzio tekniko batzuen definizioa.

Lege honen ondorioetarako, termino hauek honela ulertuko dira:

1. «Preskripzio edo zehaztapen teknikoak»:

a) Obra-kontratuak direnean, nagusiki kontratazioaren baldintza-agirietan jasotako preskripzio teknikoen multzoa, material, produktu edo hornidura bati eskatzen zaizkion ezaugarriak definitzen dituztenak eta aukera ematen dutenak haren taxuera zehazteko, botere adjudikatzailerak nahi duen erabilerari erantzun diezaion; era berean, kalitatea ziurtatzeko prozedurak; **material horien inpaktu soziala, lanekoa, ingurumenekoa edo klimatikoa**; haien prestaketan edo erabileran garatzen diren produktu edo jarduerak; beharrian guztietarako diseinua (horren barnean direla irisgarritasun unibertsala eta diseinu unibertsala edo pertsona guztientzakoa); terminologia, sinboloak, frogak eta frogatzeko metodoak; ontziratzea, markatzea eta etiketatzea; erabiltzeko jarraibideak eta **ekoizpen-prozesuak eta -metodoak, obren bizi-zikloko fase guztietan**. Barnean hartzen ditu, halaber, proiektua egiteko arauak eta obren kalkulua, obren froga-, kontrol- eta harrera-baldintzak, bai eta eraikuntzako teknikak edo metodoak eta botere adjudikatzailerak agindu ditzakeen gainerako baldintza teknikoak, erregelamendu orokorren nahiz berariazkoen bidez, amaitutako lanei eta horiek osatzen dituzten material edo elementuei dagokienez;

b) Hornidura- edo zerbitzu-kontratuak direnean, produktu edo zerbitzu bati eskatzen zaizkion ezaugarriak definitzen dituen agiri batean jasotako zehaztapena; esate baterako, kalitate-mailak, **portaera-mailak ingurumen eta klima aldetik**, beharrian guztietarako diseinua (horren barnean direla irisgarritasun unibertsala eta diseinu unibertsala edo pertsona guztientzakoa) eta adostasunaren ebaluazioa, errendimendua, produktuaren erabilera, haren segurtasuna edo neurriak; horrekin batera, alderdi hauei dagokienez produktuari aplikatu beharreko eskakizunak: salmentarako izena, terminologia, sinboloak, frogak eta froga-metodoak, ontziratzea, markatzea **eta etiketatzea**, erabilerarako

+

jarraibideak, **ekoizpen-prozesuak eta -metodoak horniduraren edo zerbitzuaren bizi-zikloaren edozein fasetan**, bai eta adostasuna ebaluatzeko prozedurak ere.

126. ARTIKULUA. Preskripzio teknikoak ezartzeko arauak.

1. 123. eta 124. artikuluek aipatzen dituzten preskripzio teknikoek aukera emango diete enpresaburuei berdintasun-baldintzetan sar daitezen kontratazio-prozeduran, eta, ondorioz, ezin izango diote justifikaziorik gabeko oztoporik jarri kontratazio publikoa lehiakideei zabaltzeari.

2. Eskatutako obrak, hornidurak edo zerbitzuak produzitzeko edo emateko prozesu edo metodo zehatzari buruzkoak izan ahalko dira preskripzio teknikoak, edo haien bizi-zikloko beste fase bateko prozesu zehatz bati buruzkoak -148. artikuluan ezarritako definizioari jarraituz-, baita faktore horiek obren, horniduren eta zerbitzuen substantzia materialekoak ez direnean ere; betiere, kontratuaren objektuari lotuta egon beharko dute eta proportzionalak izan beharko dute haren balioarekiko edo helburuekiko.

4. **Kontratuaren objektuak ingurumenean eragiten badu edo eragin badezake, ingurumen-iraunkortasunaren eta -babesaren irizpideak aplikatuta definituko dira preskripzio teknikoak**, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 3. eta 4. artikuluetan hurrenez hurren araututako definizioen eta printzipioen arabera.

5. Alde batera utzi gabe bete beharrekoak diren estatuko jarraibide edo erregelamendu teknikoak -Europar Batasuneko zuzenbidearekin bateragarriak diren heinean-, preskripzio teknikoak ondorengo modu hauetako batean formulatuko dira:

- a) **Errendimenduaren edo betekizun funtzionalen arabera, horren barenan direla ingurumen-ezaugarriak**, baldin eta parametroak behar bezain zehatzak badira lizitatzailleek kontratuaren objektua zehaztu ahal izateko eta kontratazio-organismoak kontratua adjudikatu ahal izateko;
- b) Honako hauek aipatuz, hurrenkera honetan: Europako arauetatik Estatuko arauetara ekarritako zehaztapen teknikoak, Europako ebaluazio teknikoak, zehaztapen tekniko komunak, nazioarteko arauak, europar normalizazio-organismoek egindako erreferentzia teknikoei buruzko



beste sistema batzuk; edo, aurreko horiek guztiak ezean, arau nazionalak, egokitasun teknikoari buruzko agiri nazionalak, edo obren proiektuari, kalkuluari eta obrak egiteari eta hornidurak erabiltzeari buruz egindako zehaztapen tekniko nazionalak, aipamen bakoitzari «edo baliokidea» aipamena gehituz.

Beraz, kontratu publikoei buruzko legeriak ahalbidetzen du obrak, hornidurak edo zerbitzuak eskuratzean ingurumenarekin lotutako ezaugarri jakin batzuk zehaztea eta horretarako materialei, produktuei, sistemei, homologazioei, isuriei, kontsumoei, errendimenduei eta abarri buruzko betekizunak edo zehaztapen teknikoak eskatzea.

Preskripzio edo zehaztapen tekniko bat ezartzen denean, nahitaez bete behar da, eta enpresa lizitatzailerik guztiek, proposamena aurkezteagatik, betebeharrak hori onartzen dute. Gainera, jakina, enpresa adjudikaziodunak erabat bete behar du kontratua agiritan ezarritako ezaugarri edo preskripzio teknikoekin bat etorritik egikaritzeko konpromisoa.

Ondoren, haren garrantzia eta aplikazioa azaltzen dugu:

1. Erabilgarria da zeren eta, produktuaren edo zerbitzuaren ezaugarri bat argi eta guztiz definituta badaukagu eta nahitaez bete beharrekoa izan behar duela pentsatzen badugu, ez daukalako zentzurik adjudikazio-irizpideetan pentsatzen jarraitzeak, nahikoa izango baita hala eskatzen duen preskripzio tekniko bat ezartzea.
2. Beste bertute bat ere badauka, alegia, kontratazio-organoei lana errazten diela; izan ere, frogabide objektiboa da eta erraz egiazta daiteke, ziurtapenez, etiketatuz, dokumentazio tekniko edo froga-txostenez frogatu behar delako beti.
3. Izenak berak iradokitzen duen bezala, preskripzioek (edo zehaztapenek) teknikoak izan behar dute eta, beraz, ezin da deskribapen orokor eta zehaztugaberik egin; aitzitik, produktuak, prozesuak edo materialak modu objektiboan deskribatu behar dira, errendimendu tekniko zehatza edo eskakizun funtzionala aipatuz. Edo erregelamendu, arau, homologazio, sistema edo ekoizpen-prozesu objektibo eta egiaztagarri bat aipatuz txertatu behar dira beti. Adibidez:
 - Ez da «haragi ekologiko»rik aipatu behar, baizik eta «Kontseiluaren 2007ko ekainaren 28ko 834/2007 (EE) Erregelamenduak, produktu ekologikoen ekoizpenari eta etiketatzeari buruzkoak, ezarritakoaren arabera haragi ekologikoa».
 - Ez da «elikagai osasungarri»rik eskatu behar, baizik eta «Consellaren ekainaren 15eko 84/2018 Dekretuak, elikadura osasungarria eta jasangarria sustatzekoak, ezarritakoaren arabera elikagai osasungarriak».

- Ez da modu orokorrean deskribatu behar «energia-kontsumoa txikiagotzen duten ekipamenduak eduki behar direla», zehatz-mehatz baizik: energia-aurrezki handiko ingurumen-ezaugarriak betetzen dutela modu fede-emailean egiaztatzen duten «etiketa ekologiko ofizialak (hala nola Aingeru Urdina, Energy Star, TCOs edo baliokideak) dauzkaten ekipamenduak».


APLIKATZEKO PROPOSAMENA. PRESKIPZIO TEKNIKOEN ADIBIDEA.

Hornitzeko produktuak, elementuak edo materialak nahiz kontratua egikaritzean erabiltzen direnak prestazio edo zehaztapen tekniko hauekin bat etorriko dira:

- Elikagaiek eta abeltzaintza- eta nekazaritza-produktuek ENEEKek (Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak) edo erakunde baliokide batek ziurtatuta egon beharko dute ekoizpen ekologikoari dagokionez.
- Produktu zehatzek Ecolabel, Aingeru Urdina, Zisne Nordikoa edo ziurtapen baliokideak dauzkatela egiaztatu beharko dute.
- Etxetresna elektrikoek eta ekipamendu informatikoek energia-efizientzia handiena egiaztatzen duten etiketa ekologiko ofizialak (hala nola Aingeru Urdina, Energy Star, TCOs edo baliokideak) eduki beharko dituzte.
- Paper guztiak eta produktu eratorriek (hala nola kartoiak eta kartekek) TFC, ECF, TCF, Ecolabel, Aingeru Urdina, Zisne Nordikoa, FSC edo etiketa ekologiko baliokideak eduki beharko dituzte.
- Hornitzeko ehunki, laneko arropa edo uniforme guztiek OEKO-TEX Standard 100, OEKO-TEX Made in Green, Organic 100 -Ecocert edo ziurtagiri ekologiko baliokideak eduki beharko dituzte.
- Kafea bidezko merkataritzakoa izango da nahitaez, Europako Parlamentuak bidezko merkataritzari eta garapenari buruz emandako ebazpenak (2005/2245(INI)) adierazitakoaren arabera, eta Fairtrade (FLO), Ecocert, Fundeppo, Fair for Life, Naturland Fair edo etiketa baliokideez egiaztatu beharko da.
- Hiri- zein bulego-altzari guztiek eta zura erabiltzen duten elementu guztiek FSC, PEFC edo ziurtapen baliokideak eduki beharko dituzte.

+

- Eraikuntza-elementu oro energia-efizientziako eta kontsumo txikiko irizpideekin diseinatu eta egikaritu beharko da. BREEAM, Minergie, Passivhouse, Eraikuntza Berdea, Q Sostenible edo ziurtapen baliokideez nahiz bidezkozat jotzen diren proba teknikoez egiaztatu ahalko da.
- Garraiobide guztiak elektrikoak edo hibridoak izango dira. ECO, Zero Isuri edo ziurtapen baliokideez egiaztatu beharko da.



Preskripzio teknikoak (nahitaezkoak) adieraztearen adibide gisa, Donostiako Udalaren agiri hau erakusten dugu, zeinean hornitu beharreko askotariko produktuetakako ingurumen-ziurtapenak (Aingeru Urdina, FSC, PEFC) aipatzen eta eskatzen diren.

Adjudikazio-irizpide gisa

Enpresa lizitatzailerak adjudikazio-irizpideen bidez ebaluatzea lizitazio-prozeduraren ezinbesteko eta garrantzi handiko fasea da, proposamenak (ingurumen-alderdiak barne) puntuatzea dakarrelako eta horrek kontratua enpresa bati edo beste bati adjudikatzea baldintzatuko duelako.

Kontratu publikoei buruzko Europako eta nazioko legeriaren arabera, guztiz legezkoa da ingurumen-alderdiak aintzat hartu ahal izatea enpresa kontratista aukeratzea eragingo duten proposamenak baloratzean. Beraz, kontua da adjudikazio-irizpide klasi-koei (prezioari, betearazpen-epeari, erabili beharreko materialei edo kalitate teknikoari) faktore ekologikoa gehitzea.

SPKLaren 145.6 artikulua adierazten du produktu baten bizi-ziklo osoko edozein uneri buruzko balorazio-irizpideak ezar daitezkeela eta erabili beharreko produktuen edo egin beharreko horniduren alderdi oro (diseinatzen edo ekoizten direnetik merkaturatzen, garraiatzen eta eskura jartzen diren arte, baita ondoren birziklatzen eta deskontaminatzen direnean ere) kontratuaren objektuarekin lotuta dagoela.

Gainera, ingurumen-etiketa edo -ziurtapen bat adjudikazio-irizpide gisa ezartzea bera-riaz araututa eta bermatuta dago SPKLaren 127. eta 145. artikuluetan.

127. ARTIKULUA. Etiketak.

2. Kontratazio-organoek, ezaugarri bereziak -ingurumen arlokoak, sozialak edo bes-telakoak- dituzten obrak, hornidurak edo zerbitzuak eskuratzeko asmoa dutenean, **berariazko etiketa bat eskatu ahaliko dute** preskripzio teknikoetan, **adjudikatzeko irizpideetan** edo kontratua egikaritzeko baldintzetan, obrek, zerbitzuek edo horni-durek eskatutako baldintzak betetzen dituztelako **frogabide gisa: etiketa sozial edo ingurumenekoak, nola baitira nekazaritza edo abeltzaintza ekologikoare-kin, bidezko merkataritzarekin** edo genero-berdintasunarekin lotutakoak, edo Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarriko konbentzioak betetzea bermatzen dutenak.

145. ARTIKULUA. Kontratua adjudikatzeko baldintzak eta irizpide motak.

1. Kontratua adjudikatzeko, adjudikazio-irizpide ugari erabiliko dira, kalitate-prezio erlazio onenean oinarrituta.

Espedientean aldeaz aurretik justifikatuta, kostu-eraginkortasun erlazio onenari erantzuten dion planteamendu batean oinarritutako irizpideen arabera adjudikatu ahalko dira kontratuak, prezioan edo kostuan oinarrituta; esate baterako, 148. artikulua arabera bizi-zikloaren kostuaren kalkulua erabiliz.

2. Kalitate-prezio erlazio onena irizpide ekonomiko eta kualitatiboen arabera ebaluatuko da.

Kalitate-prezio erlazio onena ebaluatzeko kontratazio-organoak ezartzen dituen irizpide kualitatiboek ingurumen-alderdiak edo alderdi sozialak jaso ahalko dituzte, kontratuaren objektuari lotutakoak, artikulua honen 6. apartatuan ezarritako moduan; honako hauek izan ahalko dira, besteak beste:

1.a Kalitatea -balio teknikoa barne-, ezaugarri estetiko eta funtzionalak, irisgarritasuna, diseinu unibertsala edo erabiltzaile guztientzako diseinua, ezaugarri sozialak, ingurumen arlokoak edo berritzaileak, eta merkaturatzea eta haren baldintzak.

Ingurumen-baldintzak, besteak beste, honako hauei buruzkoak izan ahalko dira: berotegi-efektuko gasen jaulkipena gutxitzea, aurrezpen eta efizientzia energetikoko neurriak erabiltzea eta kontratua egikaritzean iturri berriztagarrietatik datorren energia erabiltzea, eta kontratua egikaritzeak uki ditzakeen baliabide naturalei eustea edo haiek hobetzea.

3. Adjudikazio-irizpide bat baino gehiago, nolana ere, ondorengo kontratu hauetan erabili ahal izango da:

h) Ingurumenean eragin nabarmena izan dezaketen kontratuak; kontratu horiek adjudikatzeko, ingurumen-baldintza neurgarriak baloratuko dira: esate baterako, ingurumenean eragin txikiagoa izatea; ura, energia eta materialak aurrezteak eta neurriak erabiltzea; bizi-zikloak ingurumenean duen kostua; prozedura eta ekoizpen-metodo ekologikoak; hondakinak sortu eta kudeatzea, edo material birziklatuak edo berrerabiliak nahiz material ekologikoak erabiltzea.

APLIKATZEKO PROPOSAMENA. ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEEN ADIBIDEAK.


Kontratuen objektuak oso askotarikoak direla kontuan hartuta, ezinezkoa da produktu ekologikoei buruzko adjudikazio-irizpideen zerrenda osoa azaltzea, baina adibide batzuk jarriko ditugu:

Baremoaren guztizkoaren % 15 (edo 15 puntu) honako hauen balorazioari emango zaio:

- Kontratua egikaritzeko erabiltzen diren ibilgailu guztiak hibridoak edo elektrikoak izateko eta ECO, Cero Emisiones edo ziurtapen baliokideak edukitzeko konpromisoa.
- Kontratua egikaritzeko erabiltzen diren paper eta kartel guztiek TFC, ECF, TCF, Ecolabel, Aingeru Urdina, Zisne Nordikoa, FSC edo zigilu baliokideak edukitzeko konpromisoa.
- Arkitektura-proiektua Energy Star etiketaren arabera 75eko errendimendu-puntuazioarekin edo puntuazio handiagoarekin bat etorri egiteko konpromisoa..
- Energia-kontsumoa murriztea xede duten eraikuntza-irtenbideak ezartzeko konpromisoa, diseinu egokia eta parametro bioklimatikoak erabiliz, biodibertsitateari eta bioeraikuntzari buruzko zehaztapen teknikoak txertatuz edo baliabide berriztagarrietatik edo material birziklatuetatik datozen eraikuntza-materialak barne hartuz. BREEAM, Minergie, Passivhouse, Eraikuntza Berdea, Q Sostenible edo ziurtapen baliokideez nahiz bidezkotzat jotzen diren proba teknikoez egiaztatu ahal da.
- Hornitzeko edo erabiltzeko ekipamendu informatiko guztiek energia-efizientziako Energy Star etiketa, IT Eco Declaration edo energia-efizientzia handiena egiaztatzen duten etiketa ekologiko ofizialak (hala nola Aingeru Urdina, TCOs edo baliokideak) edukitzeko konpromisoa.
- Hiri- edo bulego-altzari guztiek eta elementu guztiek FSC, PEFC edo ziurtapen baliokideak dituen zura erabiltzeko konpromisoa.
- Hornitzeko elikagaien % 30ek ENEEKek (Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak) edo erakunde baliokide batek nekazaritza edo abeltzaintza ekologikoari dagokionez emandako zigilua edukitzeko konpromisoa.



- Hornitzeko haragiaren % 100ek abeltzaintza ekologikoko ziurtagiria edukitzeko konpromisoa.
- Hornitzeko edo baliatzeko kafearen % 100ek bidezko merkataritzako ziurtapen bat, hala nola Fairtrade (FLO), Ecocert, Fundeppo, Fair for Life, Naturland Fair edo baliokideak, edukitzeko konpromisoa.
- Garbiketa-produktuen % 100ek ingurumena errespetatzea edo etiketatu ekologikoren bat zein ingurumen-eragin txikia bermatzen duen ziurtagiriaren bat, hala nola EBko etiketa ekologikoa (Ecolabel) edo baliokideren bat, edukitzeko konpromisoa.
- Hornitzeko edo baliatzeko ehunki, laneko arropa edo uniforme guztiek OEKO-TEX Standard 100, OEKO-TEX Made in Green, Organic 100 -Ecocert edo ziurtagiri ekologiko baliokideak edukitzeko konpromisoa.



Valladolideko Udalaren lizitazio honetan, ingurumen-inpaktuen eta osasunerako arriskuen murrizketa baloratzen da, OEKO-TEX 100 eta Made in Green etiketetan definitutako estandarren arabera.

Objeto: Suministro de productos de alimentación para las residencias municipales de personas mayores dependientes del Departamento de Políticas Sociales y Salud Pública.

3.3.- Modo de producción sostenible: máximo 9 puntos

- Producción ecológica: 9 puntos
- Certificado de calidad Eusko Label: 8 puntos
- Producción integrada: 7 puntos



Etiqueta ekologiko bat erabiltzeko aukera edo ekoizpen ekologikoaren ziurtagia berariaz aipatzea oso ohikoa da kontratazio publikoko agirietan.



PLIEGO DE PRESCRIPCIONES
TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DEL
SERVICIO DE LIMPIEZA Y JARDENÍA.

1.2.6.15. MAQUINARIA

Respecto a la maquinaria se valorará:

- Que tengan emisiones de ruido y gases contaminantes bajos según el certificado de aprobación de la máquina (CE-type approval certificate).
- El compromiso de uso de combustibles alternativos (biodiesel, bioetanol, gas natural...) en ellas.
- El % de máquinas que cumplen con los requisitos de alguna ecoetiqueta Tipo I (Ángel Adzi, Clime Nordico, Ecoequeta austriaca) o equivalente.



Osakidetzaren agiri honetan, kontratua egikaritzean erabiltzeko makinei dagozkien zenbait ingurumen-irizpide eta -etiketa baloratzen dira.



Betearazpen-baldintza berezi gisa

Kontratuaren betearazpen-baldintza bereziak enpresa lizitatzailerak guztiek beren proposamenak aurkeztean onartzen dituzten benetako eta ezinbesteko betebeharrak dira, eta enpresa adjudikaziodunak nahitaez bete beharko ditu kontratua egikaritzean.

Ez dira aurretiazko betekizunak eta ez dira proposamena aurkeztean egiaztatu behar; aitzitik, kontratua egikaritzean eskatuko da betetzea, behin adjudikatuta eta enpresa adjudikaziodunari bakarrik, jakina.

SPKLaren 202. artikulua errepikatzen du betearazpen-baldintza bereziek «kontratuaren objektuarekin» lotuta egon behar dutela, baina gogorarazten dugu kontzeptu hori SPKLaren 145.6 artikuluan ezarritakora mugatzen dela, bertan ez baita eskatzen kontratuaren objektuarekiko zuzeneko loturarik, kontratu-prestazioarekiko erlazioa baizik: kontratu-prestazioan sartzen den edozein kontu, haren alderdietako edozeinetan, haren bizi-zikloaren edozein etapatan, haren substantzia materialaren zati bat ez direnean ere,

produkzio-prozesu zehatzean edo ingurumenaren eta gizartearen ikuspuntutik jasangarriak eta zuzenak diren produkzio- zein merkaturatze-moduei dagokienez.

Bestela esanda, betearazpen-baldintza batek ezar dezake hornitzeko haragiaren % 50 ekoizpen ekologikokoa izatea, baina ezin du ezarri proposamena aurkezten duenean enpresak ekoizten, erabiltzen edo merkaturatzen duen haragiaren % 50 ekoizpen ekologikokoa izatea.

Ingurumenaren eremuko betearazpen-baldintza berezien legezkotasuna dudarik gabekoa da, zehazki araututa dago eta kontratu publikoei buruzko legeriak berariaz bermatzen du. Eta produktu edo ekoizpen-sistema ekologikoak aipatzen dituen betearazpen-baldintza berezi bat ezartzea berariaz araututa dago SPKLaren 127. eta 202. artikuluetan; hortaz, ez da gehiago argudiatu behar prozedura-aukera horren legezkotasunari buruz.

127. ARTIKULUA. Etiketak.

2. Kontratazio-organoek, ezaugarri bereziak -ingurumen arlokoak, sozialak edo bestelakoak- dituzten obrak, hornidurak edo zerbitzuak eskuratzeko asmoa dutenean, **berariazko etiketa bat eskatu ahalko dute** preskripzio teknikoetan, adjudikatze irizpideetan edo **kontratua egikaritzeko baldintzetan**, obrek, zerbitzuek edo hornidurek eskatutako baldintzak betetzen dituztelako frogabide gisa: etiketa sozial edo ingurumenekoak, nola baitira nekazaritza edo abeltzaintza ekologikoarekin, bidezko merkataritzarekin edo genero-berdintasunarekin lotutakoak, edo Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarrizko konbentzioak betetzea bermatzen dutenak..

202. ARTIKULUA. Izaera sozial, etiko edo ingurumenekoa duten kontratuak edo bestelako izaera duten kontratuak egikaritzeko baldintza bereziak.

1. Kontratazio-organoek zilegi izango dute baldintza bereziak ezartzea kontratua egikaritzeko, baldin eta baldintza horiek lotuta badaude kontratuaren objektuarekin 145. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ez badira zuzenean edo zeharka diskriminatzaileak, Europar Batasuneko zuzenbidearekin bateragarri badira eta hala lizitazio-iragarkian nola baldintza-agirietan adierazten badira. Betiere, nahitaezkoa izango da hurrengo apartatuan zerrendatzen diren exekuzio-baldintza berezietako bat gutxienez ere ezartzea administrazio-klausula partikularren agirian.



2. Exekuzio-baldintza horiek, bereziki, kontsiderazio ekonomikoei buruzkoak, berrikuntzari edo ingurumenari lotuak edo kontsiderazio sozialei buruzkoak izan ahalko dira.

Zehazki, honako helburu hauek erdiesteko kontsiderazioak ezarri ahalko dira ingurumen-arloan: berotegi-efektuko gasen igorpenak murriztea –horrekin Ekonomia Iraunkorrari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen 88. artikuluan ezarritako helburua betetzen lagunduko da-; kontratua egikarituta ukiturik gerta daitezkeen ingurumen-balioak mantentzea edo hobetzea; uraren kudeaketa jasangarriagoa izatea; energia berriztagarrien erabilera sustatzea; produktu-birziklatzea eta ontzi berrerabilgarrien erabilera indartzea, edo solteko produktu-banaketari eta ekoizpen ekologikoari bultzada ematea.

Zerbait argitu behar da preskripzio teknikoen eta kontratuaren betearazpen-baldintza berezien arteko antzekotasunei eta desberdintasunei buruz. Antzekotasuna da bi kasuetan nahitaez bete behar direla, enpresa adjudikazioduna edozein dela ere. Eta desberdintasuna ñabardura bat da: alegia, ikuspuntu tekniko eta juridikotik, **preskripzio teknikoek kontratatzen denari buruzko betebeharrak dira, eta betearazpen-baldintza bereziek, aldiz, kontratua nola egikaritzen den ezartzen dute.**

Eta egokiena preskripzio teknikoetan kokatzea bada ere, ez da zentzugabekeria juridikoa betearazpen-baldintza berezietan ezaugarri tekniko jakin batzuk jasotzea edo lege-erreferentziak (bidezko merkataritzari, energia-etiketatuari, nekazaritza ekologikoari eta abarri buruzkoak) aipatzea. Baina, preskripzio teknikoetan jada azaldutakoa osatzeko, orain kontratua egikaritzen den moduari eta kontratu-prestazioa gauzatzeko eran ingurumen-alderdiak sartzeari buruzko proposamen batzuk egingo ditugu.

APLIKATZEKO PROPOSAMENA. KONTRATUAREN BETEARAZPEN-BALDINTZA BEREZIEN ADIBIDEAK.

Kontratuaren betearazpenaren ingurumen-kalitatea ziurtatze aldera, kontratuaren betearazpen-baldintza berezi hauekiko bat edo batzuk ezarriko dira:

- Enpresa adjudikaziodunak ingurumen-kudeaketako protokolo zehatz bat edo neurri zehatz batzuk diseinatu eta aplikatu beharko ditu.
- Enpresak hondakinak banatzeko eta haien kopurua txikiagotzeko plan zehatz bat aurkeztu beharko du eta hari buruzko prestakuntza zehatza eman beharko die kontratua egikaritzen duten langileei.



- Enpresa adjudikaziodunak kontratua egikaritzean sortutako edozein ingurumen-arazo jakinarazi beharko du eta arazoa (adibidez, substantzia arriskutsuen isurketa edo erabilera) konpontzeko neurriak hartu beharko ditu.
- Enpresak baliabideak (hala nola elektrizitatea eta ura) modu efizientean erabiltzeko eta haien kopurua txikiagotzeko plan bat edo neurrien zerrenda bat aurkeztu beharko du.
- Dosifikazio-adierazleak erabili beharko dira garbiketa-produktuen eta abarren kantitate egokiak baliatzen direla bermatzeko.
- xx orduko ingurumen-prestakuntza eman beharko zaio kontratua egikaritzen duen plantilla guztiari.
- Kontratua betearazteko esparruan ibilgailuak gidatzen dituzten pertsonak gidatze ekologikoko teknikei buruzko prestakuntza zehatza eduki beharko dute isuriak eta erregaia aurrezteko.
- Enpresak behar diren neurriak hartuko ditu eragozpenak sor ditzaketen zaratak eta bibrazioak txikiagotzeko, horrelakoak dakartzaten lanak herritarren ohiko atseden-orduekin bateragarriak diren orduetan eginez. .
- Enpresak eraispen-hondakinak eta eraikuntza-obrako berezko hondakinak kudeatzeko plan bat aurkeztu beharko du lanak hasi baino lehen, eta materialak bereizita eta tokian bertan biltzeko sistemak ezarriko ditu, berrerabiltzeko, birziklatzeko eta balorizatzeko asmoz.
- Produktuak garraiatzeko ontzi edo enbalaje berrerabilgarriak erabili beharko dira.



EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETASAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

B .- PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS PARA EL DESARROLLO DEL SERVICIO DE COMEDOR EN LOS CENTROS DE ENSEÑANZA DE GESTIÓN DIRECTA CON PERSONAL DE COCINA DEPENDIENTE DEL DPTO. DE EDUCACION. SE INCLUYEN LAS CONDICIONES TÉCNICAS PARA EL SUMINISTRO DE MATERIAS PRIMAS

13. GESTIÓN MEDIOAMBIENTAL.

13.1. – El adjudicatario deberá tener implantado, o estar en proceso de implantación en su empresa, de un sistema de gestión ambiental.

13.2. – El adjudicatario deberá realizar una gestión adecuada de los residuos generados en el proceso de prestación del servicio, acorde a lo recogido en la legislación vigente.

13.3. – En relación a la segregación de residuos en los centros, el centro estará dotado de contenedores para poder separar las distintas fracciones.

13.4. – Una vez finalizado el servicio, el adjudicatario deberá depositar los residuos segregados en los contenedores de recogida selectiva adecuados o, en su caso, gestionarlos mediante un gestor autorizado.



Eusko Jaurlaritzaren agiri honetan, ingurumen-kudeaketari eta hondakin-kudeaketari buruzko zenbait betebeharrak ezartzen dira.

PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA CONTRATACIÓN DE LA ASISTENCIA PARA PRESTAR EL SERVICIO DE COMEDOR EN LAS ESCUELAS MUNICIPALES DE BAZTAN DE NIÑOS DE 0 A 3 AÑOS.

Asimismo ofrecerá formación a su personal sobre los criterios ambientales de los productos alimenticios incorporados (agricultura ecológica, alimentos de denominación de origen, proximidad y producción integral) y ofrecerá información a los padres y madres de los menores sobre los menús y los productos utilizados. La información al igual que los menús deberá trasladarse o estar redactada en euskera o bilingüe (euskera-castellano).



Baztango Udalak ingurumen-irizpideei buruzko prestakuntza eta informazioa eskatzen ditu (nekazaritza ekologikoari, jatorri-deiturari, hurbiltasunari eta ekoizpen integratuari buruz).



NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE INSTALACIÓN Y EXPLOTACIÓN DE MÁQUINAS EXPENDEDORAS DE ALIMENTOS EN LOS EDIFICIOS DE LA UPV/EHU

3.11. PRODUCTOS DE COMERCIO JUSTO

Las máquinas de bebidas calientes deberán ofertar obligatoriamente el café, el té y el chocolate de comercio justo. Los productos de comercio justo ofertados deberán haberse producido cumpliendo los parámetros de la Resolución del Parlamento Europeo sobre Comercio Justo y Desarrollo A6-0207/2006.

Se considerará que los productos que hayan sido importados y distribuidos por Organizaciones de Comercio Justo acreditadas por WFTO (World Fair Trade Organization) o miembros de la Coordinadora Estatal de Comercio Justo, o que porten el sello de Comercio Justo FLO (Fair Trade Labelling Organizations), cumplen dichos criterios. Otros operadores económicos (suministradores) deben demostrar la equivalencia con los estándares señalados por cualquier medio de prueba adecuado.

En el caso de los productos ofertados que hayan sido elaborados bajo los estándares del comercio justo, la empresa contratista deberá:

- Publicitar visiblemente sobre la máquina la procedencia de los mismos, e indicar claramente la denominación "Comercio Justo".



UPV/EHUK betearazpen-baldintza berezi gisa eskatzen du kafea, tea eta txokolatea bidezko merkataritzakoak izatea, ziurtapen nagusiak aipatuz.

3. Hurbileko eta 0 kilometroko produktuak

Haren ezaugarri bereziengatik, hurbiltasunari edo 0 kilometroari buruzko irizpideari apartatu bereizi batean heltzea erabaki dugu.

Zalantzarik gabe, irizpide hori agirietan sartzea toki-garapenerako onura ziurak dakartza, despopulazioa saihesten du, ekonomia zirkularren alde egiten du, herrian enplegua sortzen du edo kontratatutako enpresen tokian tokiko egoitzagatiko zerga-itzulera sortzen du.

Arazoa da lizitazio-agirietan helburu horiek aldezte eta gauzatzea kontratazio publikoaren oinarritzko printzipio batzuekiko bateraezintzat jotzen dela, adibidez, diskriminaziorik ezaren, kokapen-askatasunaren edo tratu-berdintasunaren printzipioak direla eta. Funtsean, tokiko, eskualdeko edo nazioaren enpresei mesede egiten diela pentsatzen da, eta horrek lehia askea hondatzen du.

Hala ere, agirietan xede horiek aipatu gabe, kontratu publikoei buruzko araudiak ahalbidetu egiten digu helburu bera erdiestea eta, ondorioz, hurbileko edo 0 kilometroko produktuak lehenestea edo eskatzea, baldin eta kontratua egikaritzean CO₂-aren eta berotegi-efektuko gasen isuriak saihesteko edo haien kopurua txikiagotzeko helburua soilik aipatzen badugu oinarrian eta klausuletan. Hau da, ekoizpenetik kontsumorainoko hurbiltasuna ebaluatu behar da, baina ingurumen-inpaktuarekin erlazionatuz.

Beraz, eta aipatutako gomendioari jarraituz, legezkoa eta egingarria da produktu jakin batzuk (adibidez, elikagaiak) emate- edo kontsumo-puntutik distantzia jakin batera ekoitzita nahiz eraldatuta egon daitezela eskatzea edo hori baloratzea.

Horrelako klausulak kontratu publikoei buruzko legeriaren ondorioetarako balioduntzat jotzeko, distantzia bat kontuan hartu eta CO₂ isuriekin erlazionatu beharko da betiere. Distantzia-faktorea ezingo da eskualdearekin edo nazioarekin lotutako ezein baldintzagatik aldatu, hau da, Irungo Udalak hornidura bat lizitatzen badu, Hendaia-ko nekazari batek Arabako Lautadako batek baino puntu gehiago lortu ahalko ditu.

Agirietan sartu ohi diren klausulen ereduak, oro har, eskala bat jasotzera eta ekoizpen- edo eraldaketa-lekutik emate-punturainoko distantziaren arabera puntuak ematera mugatzen dira. Bi adibidetan ikusiko dugu:

PLIEGO REGULADOR QUE HA DE REGIR EN LA CONTRATACIÓN DEL CONTRATO DE SUMINISTRO POR PROCEDIMIENTO ABIERTO DEL AYUNTAMIENTO DE PAMPLONA

1. PROXIMIDAD:

Distancia del centro logístico respecto a la sede del órgano de contratación.

Se valorará con 10 puntos cuando la distancia al punto de entrega sea igual o inferior a 10 kilómetros; con 6 puntos cuando la distancia sea superior a 10 kilómetros e igual o inferior a 25 kilómetros; con 3 puntos, por su parte, cuando la distancia sea superior a 25 kilómetros e igual e inferior a 50 kilómetros.

Ptos	Criterio
10	0-10km
6	10-25km
3	25-50km

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DEL SUMINISTRO DE PRODUCTOS ALIMENTICIOS PARA LA COCINA DE LA RESIDENCIA URDUÑAKO ARKUPEA S.L., MEDIANTE PROCEDIMIENTO ABIERTO, OFERTA ECONÓMICAMENTE MÁS VENTAJOSA, VARIOS CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN.

2.- En el Producto. Distancia entre el punto de producción y/o transformación y el punto de consumo. O

Objetivo: reducir la distancia transportada de los productos por lo que implica en la calidad del producto y en la emisión de GEI. Productos km0.

Ptos	Criterios
20	0 - 10km
15	10 - 50km
5	50 - 250km
2,5	250-400km
1,25	Distancia superior a 400km

Formula hori errazena da, baina gomendagarria da agiriak idaztean ibilgailu-mota (elektrikoa, hibridoa, dieselezkoa, gasolinazkoa) kontuan hartzen duten edo ibilgailu bakoitzaren txartel teknikoak aipatzen dituzten aukerak ezartzea edo enpresa lizitatzailerak aurrez ezarritako batez besteko distantzietatik eta isurietatik salbuesteko edo horiek minoratzeko egiaztagiri fede-emailerik aurkeztu dezakeen zehaztea. Ildo horretan, komeni da gomendatzea jarraian adibide gisa erakusten den klausula idaztea:

3.2.- Emisiones de CO2 a la atmósfera desde el lugar de producción y/o transformación al centro de consumo: máximo 12 puntos.

Las emisiones de CO2 en el transporte del producto se calculan multiplicando la emisión específica oficial de CO2 del vehículo que se vaya a utilizar por la distancia desde el centro de producción al destino.

La puntuación para este apartado se adjudicará de acuerdo con la siguiente tabla de tramos de CO2 emitidos en cada transporte.

Emisiones de CO2 por viaje

gr. CO2	Puntos
< 5000	12
5001-7500	10
7500-10000	8
10001-15000	6
15001-20000	4
20001-25000	2
>25000	0

La propuesta identificará el o los vehículos que se utilizarán en el transporte e incorporará copia de la tarjeta energética voluntaria facilitada por el IDAE. En el cálculo se utilizará la cifra de emisión del vehículo con mayor valor de emisiones (en caso de varios vehículos).

Para la distancia, se utilizará la distancia menor de las opciones proporcionadas por la herramienta Google maps. A efectos de este cálculo, se utilizará como origen la dirección postal completa del centro de producción que debe figurar en la propuesta, y como destino, el muelle de carga de la cocina central del CIAM San Prudencio (San Vicente de Paúl nº 2 de Vitoria-Gasteiz).

4. Kontrola eta egiaztapena

Klausulak betetzen diren egiaztatzeko fasea funtsezko unea da kontratazio publiko arduratsuaren prozesuan. Eta egia bada ere administrazio publiko askok beren agirietan ingurumen-klausulak sartzen dituztela, gutxi batzuek baino ez dute benetan egiaztatzen egokiro betetzen ari diren.

Enpresa guztiak ez dira sistematikoki urratzaileak, baina, askotan, lizitatzailleek badakite ingurumen-klausulak ez direla egiaztatzen eta ez dela eskatzen betetzea frogatzeko; beraz, ez dute arazorik konpromisoak hartzeko. Egoera hori arintzeko, jasangarritasunari eta ingurumen-erantzukizunari buruzko klausulen betetzea errazteko zenbait neurri proposatzen ditugu:

1. Agirietan beti adieraziko da nola (zer dokumentazio, xehetasun edo ziurtapenekin) eta noiz egiaztatuko den betetzea.
2. Frogatu beharraren karga enpresa kontratistari egokituko zaio. Eta, behin kontratua adjudikatuta, ez da beharrezkoa izango berariazko errekerimendu bat egitea; aitzitik, adjudikaziodunak epe eta modu egokian egiaztatuko du betetzea.
3. Gainera, kontratuaren objektuaren arabera, aldizkako zein ausazko kontrol-sistemak, ikuskapenak edo dokumentazio-errekerimendu gehigarriak ezarri ahalko dira.
4. Ingurumen-irizpide guztiak (bai preskripzio teknikoak, bai adjudikazio-irizpideak, bai betearazpen-baldintza bereziak) funtsezko kontratu-betebehartzat joko dira, hau da, garrantzi-kategoria altuena emango zaie.
5. Agirietan berariaz ohartaraziko da aurkeztutako dokumentazioa erkatu eta egiaztatuko dela.
6. Berariaz adieraziko da ez-betetzeren bat egonez gero balitekeela kontratua hutsaltzea, zigorrak ezartzea, ez luzatzea, faktura ez ordaintzea eta kontratatzekeo debeku bat ezartzea.
7. Sistema hori aplikatuz, erabateko gardentasuna eta tratu-berdintasuna emango zaio prozedurari, enpresa lizitatzaille guztiek aldeztu aurretik jakingo dutelako zer dokumentazio aurkeztu beharko duten adjudikaziodun suertatuz gero. Eta lizitatzaillei mezu laukoitza helaraziko diegu:

- Ingurumen-klausulak benetan bete behar dira.
- Aurrez ezarritako dokumentazioa aurkeztuz betetzen dituztela egiaztatzea egokituko zaie.
- Ondo egikaritzen ari diren egiaztatuko da, kontrol-eginkizuna berariaz esleituz.
- Ez betetzeak ondorio larriak ekarriko ditu.

Ondorioz, lehenik eta behin, kontrol-sistema orokor bat proposatzen dugu eta kontratazio-agirien apartatu zehatz batean sartzea gomendatzen dugu. Gainera, kontratuaren objektuaren, prestazio-motaren eta eskatu edo baloratu diren ingurumen-ezaugarrien arabera, betetzea egiaztatzeko modu zehatza adierazi beharko da: ziurtapenak, berariazko etiketatua, hornitzaileak, albaranak, fitxa teknikoak, fakturak, probak edo saiakuntzak, neurketak, etab.

Jarraian, kontratazio-agirietan kontrol-sistema orokorrari buruzko apartatua idazteko proposamen bat aurkezten dugu.

INGURUMEN-KLAUSULAK BETETZEA ETA EGIAZTATZEA.

1. Preskripzio teknikoak, adjudikazio-irizpideak eta ingurumenaren eremuko betearazpen-baldintza bereziak funtsezko kontratu-betebehartzat jotzen dira. Beraz, betetzen ez badira, larritasunaren arabera, ondorio hauek sortuko dira:
 - Zigorak ezartzea; kontratazio-organoak zenbatetsi beharko du munta, larritasunaren arabera, kontratuaren prezioaren % 20raino gehienez ere.
 - Kontratua ez-betetze errudunagatik suntsiaraztea. Horrek, gainera, bi urtez edozein lizitazio-prozedura publikotan lizitatzeko desgaitzea ekarri ahalko du.
 - Ez da kontratuaren prezioa ordainduko, ezta ziurtapen partzialak ere, ingurumen-klausulak bete eta egiaztatu arte.



2. Enpresa kontratistak ingurumenaren eremuko preskripzio tekniko, adjudikazio-irizpide eta kontratuaren betearazpen-baldintza berezi guztiak bete beharko ditu eta, horrez gain, agiri honetan aipatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du bete dituela egiaztatzeko.
3. Kontratuaren arduradunak edo unitate kudeatzaileak aurkeztutako dokumentazioa egiaztatu beharko du eta ingurumenaren eremuko preskripzio teknikoekin, adjudikazio-irizpideekin eta betearazpen-baldintza bereziekin bat datorren ebaluatu beharko du.
4. Kontratistak klausularen bat betetzen ez badu, kontratuaren arduradunak edo unitate kudeatzaileak horren berri eman beharko du eta, hala badagokio, zigorak ezartzeko edo kontratua suntsiarazteko prozedura hastea proposatuko du.



BOLETÍN OFICIAL DE BIZKAIA

BOB

Núm. 58

Jueves, 22 de marzo de 2018

Pág. 5

SECCIÓN I

ADMINISTRACIÓN FORAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA

Diputación Foral de Bizkaia

Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 33/2018, de 13 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento ejecutivo para la incorporación de cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas en el procedimiento de contratación de la Diputación Foral de Bizkaia.

Artículo 5. – Seguimiento del cumplimiento de las cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas

1. Los órganos de contratación de esta Diputación Foral de Bizkaia deberán velar por el cumplimiento de las obligaciones previstas en este Reglamento, estableciendo en los pliegos las consecuencias de su incumplimiento, que podrá dar lugar a la imposición de penalidades, a la prohibición de contratar de las personas empresarias, o a la resolución del contrato en aquellos supuestos en que la obligación contractual incumplida sea esencial o venga impuesta así en la Ley de Contratos del Sector Público.

2. A tal fin, la persona responsable designada por el órgano de contratación para la supervisión de la ejecución del contrato y garantía de la correcta realización de la prestación pactada realizará el seguimiento periódico del cumplimiento de las obligaciones asumidas por la persona adjudicataria con relación, asimismo, al cumplimiento de las cláusulas relativas a consideraciones de tipo social, medioambiental o de otra tipología de políticas públicas.

3. La persona responsable del contrato informará al órgano de contratación sobre los posibles incumplimientos de estas cláusulas sociales y, en su caso, propondrá el inicio del procedimiento de imposición de penalidades o de resolución del contrato.

4. En todo caso, deberá comprobarse que la empresa contratista y, en su caso, subcontratista cumple la obligación de empleo de personas discapacitadas en el porcentaje del 2 por 100 de la plantilla si esta alcanzara un número de 50 o más trabajadores y la disposición de un Plan de Igualdad para las empresas de más de 250 personas trabajadoras, con el contenido previsto en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

5. En los contratos que tengan como destinataria directa a la ciudadanía, o en los que se pueda apreciar un interés de la ciudadanía durante su ejecución, se podrá articular un canal de comunicación en el que ésta pueda realizar sus apreciaciones en cuanto a la ejecución del contrato, para contribuir al estricto cumplimiento de las obligaciones contractuales por parte del contratista, la garantía de los derechos de las personas usuarias del servicio de que se trate, o asegurar la calidad, funcionalidad y durabilidad de las prestaciones que integren el objeto del contrato.

6. Con la factura final deberá aportar la persona contratista una declaración responsable/jurada de haber cumplido todos los compromisos y condiciones especiales de ejecución que le fueran exigibles legal o contractualmente, relacionando dichas medidas. A esta declaración le acompañará un informe al respecto de la persona responsable del contrato, en el que se analice el efectivo cumplimiento de lo declarado y de cualquier otra obligación contractualmente impuesta.



Jardunbide egoki gisa, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 13ko 33/2018 Foru Dekretuan (zeinaren bidez Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratazio-prozeduran klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei dagozkienak sartzeko erregelamendu betearazlea onartzen den) ezarritako kontrol-xedapena erakusten dugu.

5. Ingurumen-ziurtapenen eta -etiketen adibideak

Jarraian, eremu bakoitzeko ingurumen-etiketa eta -ziurtapen garrantzitsuenetako batzuk zerrendatzen dira.

ZIURTAGIRIAK ETA ETIKETA EKOLOGIKOAK				
ECOLABEL	AINGERU URDINA	ZISNE NORDIKOA	EMAS	ISO 14001
				

ELIKADURA			
ELIKADURA, ABELTZAINZA ETA NEKAZARITZA EKOLOGIKOA	EUROPAKO EKOIZPEN EKOLOGIKOA	ARRANTZA JASANGARRI ZIURTATUA	ANIMALIEN ONGIZATEA
			

PAPERA					
TCF	ECOLABEL	AINGERU URDINA	ZISNE NORDIKOA	ECF	FSC
					

EHUNKIAK		
OEKO-TEX Standard 100	OEKO-TEX Made in Green	ORGANIC 100 -ECOCERT
		

BIDEZKO MERKATARITZA				
FAIRTRADE INTERNATIONAL (FIO)	ECOCERT	FUNDEPPO	NATURLAND FAIR	FAIR FOR LIFE
				

ENERGIA-EFIZIENTZIA	
ENERGY STAR	EUROPAKO ETIKETA
	

ZURA ETA BASO-KUDEAKETA	
FSC	PEFC
	

ERAIKUNTZA

BREEAM	ETXE PASIBOA	ERAIKUNTZA BERDEA	Q SOSTENIBLE
			

IBILGAILUAK

INGURUMEN-BEREIZGARRIA



B

- Turismoak eta furgoneta arinak:
 - gasolinazkoak, 2000ko urtariletik aurrera matrikulatuak.
 - dieselazkoak, 2006ko urtariletik aurrera.
- 8 plaza baino gehiagoko ibilgailuak eta astunak, bai gasolinazkoak, bai dieselazkoak, 2005etik aurrera matrikulatuak.

C

- Turismoak eta furgoneta arinak:
 - gasolinazkoak, 2006ko urtariletik aurrera matrikulatuak.
 - dieselazkoak, 2014ko urtariletik aurrera.
- 8 plaza baino gehiagoko ibilgailuak eta astunak, bai gasolinazkoak, bai dieselazkoak, 2014tik aurrera matrikulatuak.

ECO

- Ibilgailu hibrido entxufagarriak <40 km-ko autonomia dutenak
- Hibrido entxufaezinak (HEEak)
- Gas naturalez propulsatuak
- Gas naturalez (GNKz eta GNLz) edo petrolio-gas likidotuz (PGLz) propulsatuak.

Cero emisiones

- Ibilgailu elektriko bateriaduna (IEBa)
- Autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoak (AHIEa)
- Ibilgailu elektriko hibrido entxufagarria (IEHEa), gutxienez 40 kilometroko autonomia daukana, edo erregai-piladun ibilgailuak.

6. Gehiago jakiteko

Ingurumen-klausulen konplexutasun teknikoa eta kontratuaren objektuen nahiz erabiltzeko edo hornitzeko produktuen moten aniztasuna kontuan hartuta, egokia iruditzen zaigu gida honetan Ihobe (Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari atxikitako sozietate publikoa) aipatzea eta haren web-orrirako esteka bat sartzea.

Ihobek urte asko daramatza erosketa publiko berdeari buruzko material bikainak sortzen. Eta Europako testuinguru osoko eduki teknikorik onenak eratu ditu kontratazio publikoko ingurumen-irizpideei dagokienez.

Haren metodologia kontratu-objektuak analizatzetik abiatzen da, eta bakoitzerako gida labur bat, eskakizun-mailaren araberako irizpideak eta zenbait administrazio publikoren jardunbide egokien bilduma bat jasotzen ditu.

Esteka honetan, hogeita hamar kontratu-objektutarako preskripzio tekniko, adjudikazio-irizpide edo betearazpen-baldintza egokienak deskarga daitezke, hain zuzen ere, lizitazio publikoetan ohikoenak diren objektuetarako: papera, ibilgailuak, obrak, lorezaintza, ehun-kiak, argitalpenak, garbiketa, hondakinen bilketa, etab.

<http://www.ihobe.eus/ingurumen-irizpideak>

 OBRA ZIBILA	 ERAIKINGINTZA	 EKITALDIAK	 EKIPAMENDU INFORMATIKOAK, INPRIMAGAILUAK	 BULEGOKO ALTZARIAK
 EKIPAMENDU INFORMATIKOAK, ORDENAGAILUAK	 KALE- GARBIKETA HONDAKINAK	 URBANIZAZIO- OBRAK	 LOREZAINITZA	 VENDING- ZERBITZUA
 EHUNKIAK LANEKO ARROPA	 ENERGIA- HORNIDURA	 IBILGAILUAK	 MEZULARITZA	 ERAIKINEN GARBIKETA
 EHUNKIAK OINETAKOAK	 CATERING- ZERBITZUA	 PAPERA	 EHUNKIAK OSAGARRIAK	 ARGITALPENAK